

## **2014-11-25eko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2014ko azaroaren 25ean, arratsaldeko 07:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeko zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Josu Yurrita Loitegi, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Tomás Etxeberria Sarasola eta Gorka Murua Macuso.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

### **LEHENENGO GAIA**

**UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2014-10-28).**

2014ko urriaren 28ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

### **BIGARREN GAIA**

**ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO URRIAREN 24TIK AZAROAREN 21ERA.**

Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2014ko 211. Zenbakitik, 252. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.



Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 laneguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat atxikitzen da eta, ondorioz, Udalbatzari honako komunikazioa egiten zaio:

-2014ko aurrekontuaren barruko 2. kreditu-aldaketaren espedientearen proposamenak ez du defizitaren helburua betetzen.

-Beraz, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoa dena, Udala behartuta dago plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

-Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako "2013ko aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidearen" arabera, arauak betetzen ez badira diruzaintzako soberakinak erabiltzeagatik, espediente honetan bezala, 1/2013 Foru Arauko 5. artikulua hiru hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egiten da: zirkunstantzia hori adierazten da eta Udalaren finantza-iraunkortasuna aztertzen eta ebaluatzen duen Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzaren txostena atxikitzen da. Txosten horren

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

-Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 2 dentro del Presupuesto de 2014 no cumple con el objetivo de déficit.

-Que en consecuencia con el art. 21 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, el Ayuntamiento está obligado a aprobar un Plan Económico Financiero.

-Sin embargo y de acuerdo con lo dispuesto en la Instrucción aprobada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para la aprobación de los Presupuestos de las Entidades Locales para 2014, en el caso de no cumplimiento de las normas citadas por utilización del Remanente de Tesorería, como es en este expediente, y de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo tercero del art. 5 de la Norma Foral 1/2013, se realiza la siguiente comunicación: Se manifiesta la circunstancia citada y se adjunta un informe de Secretaría-Intervención en el que se analiza y evalúa la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento. De acuerdo con dicho informe la sostenibilidad financiera de este

arabera Udal honen finantza- Ayuntamiento es buena.  
iraunkortasuna ona da.

**LAUGARREN GAIA**  
**AMETSA PILOTA ELKARTEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA,**  
**HALA BADAGOKIO.**

Irurako Udalak xare kirola suspertu nahi du eta, horretarako, akordio batera iritsi da Ametsa Pilota Elkartearekin: elkarte honek 5 urtetik gorako haur eta gazteei xare eskolak emango dizkie 2014-2015 ikasturtean, eta ikastaroak eragindako gastuak ordaintzeko Udalak 4.900 € emango dizkio elkarteari.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

**AKORDIOA**

1.-Hitzarmen hori onartzea.

2.-Irurako Udaleko Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkateari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

**BOSGARREN GAIA**

**2015EKO EKITALDIRAKO UDAL TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN**  
**ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalbatzak, aho batez, erabaki du mahai gainean uztea.

**SEIGARREN GAIA**

**IRURAKO UDALAREN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA, HALA**  
**BADAGOKIO.**

Idazkari-kontuhartzaileak adierazten du prestatzen hasi dela, baina ez duela bukatu, ondo nahi du prestatu eta ondoren zirriborroa zinegotzi bakoitzari bidali begiratzeko.

Hori dela eta udalbatzak erabaki du, ahoz betez, mahai gainean ustea.

**ZAZPIGARREN GAIA**

**EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNEKO**  
**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Mozio hau aurkeztu da:

**“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA – Euskal Herria Bildu EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BIOLENTZIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroak 25 dela eta, “Emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna”, Euskal Herria Bildutik ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Eta helburu honek, bizitza kolektiboaren kudeaketa antolatzen eta kudeatzen diharduen instituzio publiko guztietan lehentasunezkoa behar du izan eguneroko jardunean.

Aurten berriro ere, modu anitzean gauzatutako eta emakume ugari eragindako biolentzia matxista izan dugu gure artean. Feminizidioa adierazle nabarmenena duen biolentzia matxista hain zuzen ere. Desagertzetik urrundu eta geure jendaratean errotuta dagoen biolentzia matxista honek, aurpegi ugari ditu, tartean eraso fisiko eta sexualak, baina ekonomikoak eta hitzezkoak ere badaudelarik. Aurten ordea, eraso ideologiko eta diskurtsibo ugari izan dugu, hainbat iritzi gune, epaile eta ordezkari politikoren aldetik.

Horregatik diogu biolentzia matxistari aurre egiteko, bizitzaren esparru orotan berdintasunezko harremanak oinarri izango dituen jendaratearen eraldaketa ezinbestekoa dela.

Eta zentzu honetan diogu, biolentzia ez litzatekeela gauzatu ahalko, baldin eta onartzen eta posible egiten duen jendarateratze mekanismoak egongo ez balira; hainbatetan biolentzia kontziente edo inkontzienteki arrazoituztat, beharrezkotzat edo saihestuzkotzat jotzen baita. Eta honela, erlijioak, hizkuntzak, komunikabideak, familiak eta hezkuntzak biolentzia egonkortu dadin, jendarateratze mekanismoen eragile bilakatzen dira.

Horregatik, emakumeok biolentzia matxistarik gabeko bizitza libreak bizi ahal izateko, burutu beharreko lan eta estrategiek ondorengo urratsetan behar dute izan oinarri:

- Biolentzia matxistari aurre egiteko garaian, emakume eta gizonen arteko bazterkeria estrukturalaren kontrako lanketa hartu oinarri.
- Biolentzia modu anitz eta ugariak bistaratu, biolentzia horiek gauzatzen diren espazio ugariak agerian uztearekin batera.
- Baztertzailerak diren adierazpen eta gauzape kulturalei aurre egin, eta biolentzia matxistaren eragiletzat jo halakotzat hartuak ez baina badiren fenomeno sozio-kultural eta simbolikoak, hauen bitartez ematen baita gehienetan biolentzia matxistaren legitimazioa.
- Agerian utzi, prebentzio lana egin eta emango bada aurre egin, beste biolentzia matxista moduei, transfobia, lesbofobia edo homofobiaren modukoei.
- Biolentzia matxistaren aurrean gizonen duten protagonismoa eta jarrera hartzeak aztertzeraz bultzatu: eraso zer den eta zer ez den identifikatzeko dituzten arazoak, emakumezkoekin eraikitzen dituzten harremanak, balizko jardunbide matxisten aurreko beraien jarrera, edo eraso matxista baten aurrean har lezaketen jarrera pasiboa eraso babestu ez arren.

- Prebentzioa ezinbesteko elementutzat hartu, berdintasuna oinarri izango duten harremanak sortu eta eraikitzeko garaian, hezkuntza formal eta ez formalean eragin beharko dugularik.

Honengatik guztiagatik, Irurako Udalak, honako konpromisoa hartzen du:

- Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartuz.
- Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.
- Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.
- Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekina eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.
- Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal gunekoak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.

Azkenik, dei egiten dugu egun honi begira mugimendu feministak antolatu dituen ekimenekin bat egin eta bertan parte hartzera.”

Udalbatzak, aho batez, erabaki du onartzea.

### **ZORTZIGARREN GAIA.**

#### **EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN MOZIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Mozio hau aurkeztu da:

“Dagoeneko ate-joka dugu abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna. Kontuan hartuta euskararik gabeko Euskal Herririk ezin izan daitekeela, ospakizun-eguna izateaz gain aldarrikapen-egun bilakatu eta aurtengoan edukiz eta formaz beteta, 365 egunez luzatu nahi dugu. Hori horrela, ondorengoa

#### **JAKINARAZTEN DUT**

Lehenengoa.- Abenduaren 3tik abenduaren 10era arte (Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna) gure Udaletxean “Euskaraz bizi nahi dugu” dioen pankarta koloretsua jarri eta mantenduko dugu.

Bigarrena.- Dei egiten diegu udalerrri honetako bizilagun euskaldun guztiei beraien elkarte, enpresa edo bestelako entitatean webgunea baldin badu, euskaraz jarri edota aritu eta izena eman dezaten “.eus” domeinua

eskuratu ahal izateko (<http://www.domeinuak.eus/eu/>), euskaldun guztion artean ikusgarri eta elkar ezagutzeko gai izan gaitezen, gure hizkuntza komunitatea munduaren aurrean ager dadin.

Hirugarrena.- Herritarroi gogorarazi nahi dizuegu, edozein hizkuntz eskubide urratua sumatzen duzuenean, eskuragarri duzuela [www.behatokia.org](http://www.behatokia.org) zein <http://www.euskara.euskadi.net/r59-eleb/eu/> web orrietan kexa jartzeko bidea. Behatokia elkarteak zein Elebide zerbitzuak garatzen dituzte kexei dagozkien jakinarazpen eta gestioak."

Udalbatzak, aho batez, erabaki du onartzea.

### **BEDERATZIGARREN GAIA**

#### **TOLOSALDEKO OSASUN SISTEMAREN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Mozio hau aurkeztu da:

"Gipuzkoako Osasunaren Lurralde zuzendari zuzena Rafael Uribarren Axpe jn.ari.

Irurako Udalak osasun arloko profesional batzuegandik jakin du OSI izeneko osasun antolakuntza integratua jartzeko asmoa duzuela Tolosaldean.

Proposamen hau aztertzeko beharrezko informaziorik ez dugu.

Jakinik, batetik, 2013-2016 Lerro Estrategikoen bidez herritarren parte-hartzea sustatu nahi dela, eta, bestetik, Euskadiko Osasun Antolamenduaren legearen arabera herritarren parte-hartzea dela Euskadiko osasun sistemaren funtzionamendu eta antolamenduaren oinarrietako bat, bai planak eta helburuak zehazterakoan bai emaitzak ebaluatzerakoan.

Jakinik 2013-2016 aldirako EAEko Osasun sailaren helburuetako bat dela gaixoaren ahalduntzea.

Esan behar dugu ezinezko izan zaigula, informazio nahikoa izatea kezka sortzen digun gai honen inguruan, izan ere, inork ez du informaziorik. Iritsi zaigun informazioaren arabera, kezkatuta gaude Tolosaldeako herritarrentzat eragin txarra izango duelako sistema berri honek.

Horregatik idatzi honen bitartez zera

**ESKATZEN DUGU**

Zuzendaritza horrek bidal diezagula Tolosaldean jarri nahi den OSI izeneko sistemaren inguruko informazio guztia. Horrela, agiriak aztertu ondoren, gure iritzia eman ahal izango dizugu eta herritarren parte-hartzea sustatuko dugu, guk ere, horretan sinisten baitugu.

Gure eskaera kontuan izango duzelakoan eta zuen berri laster izango dugulakoan, agurtzen zaituztegu."

Udalbatza, aho batez, erabaki du onartzea.

Galdera eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute, aho bate, batzarkideek, eta hauek Udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren botoa osatzen baitute:

### **HAMARGARREN GAIA**

#### **UDAL TRINKETEAREN TABERNA ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-**

Udal honek 2014ko maiatzaren 27an erabaki zuen esleitzea Ametsa Udal Trinketeko tabernaren zerbitzu-gestioa Koldo Seara jaunari eta Aitor Besance jaunari, hasieran 12 hilabeteko probaldiz, 2014ko ekainaren 13tik hasita.

Kontratuaren betebeharren artean erakina osoaren garbiketa arduratzea zegoen.

Ikusita betebeharrak ez dela betetzen, Udal honek, aho batez, hau erabaki du:

1º.-Oraingo kontratuaren baldintza hauek aldatzea:

a) Emakidadunek arduratuko dira taberna (barneko gela guztiak) terraza eta lehenengo solairu osoa garbitzeaz; baita lehenengo solairura igotzeko eskailerak eta igogailua ere. Udalak doan utziko du garbiketa materiala.

Este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 27 de mayo de 2014, acordó adjudicar el contrato de gestión del servicio del bar del trinkete municipal Ametsa a D. Koldo Seara y D. Aitor Besance, por un periodo inicial de prueba de 12 meses, a contar desde el 13 de junio de 2014.

Entre las condiciones del contrato estaba la de encargarse de la limpieza total del edificio.

Visto que esta obligación no se está prestando de forma satisfactoria, este Ayuntamiento y por unanimidad de los presentes, acuerda lo siguiente:

1º.-Modificar las siguientes cláusulas del contrato actual:

a) Los concesionarios se encargarán de la limpieza del bar (con todas las salas interiores), terraza y el resto de la 1ª Planta, las escaleras de acceso a la 1ª Planta y el ascensor. Este Ayuntamiento suministrará gratuitamente el material de la misma.



b) Ikusita ematen zen zerbitzua kanon negatiboarekin konpentsatzen zela, emakidaren kanona horrela izango da:

Emakidadunek ordainduko dute kanon kopuru hau : 550 euro hilero, eta banaketa honekin: 454,55 € + 95,45 €(BEZ %21).

Kopuru hori ordainduko hiruhilero eta epea pasatu ondoren.

Hala ere, Udalak ordainduko dituen horniketa-gastuak konpentsatuko dira hiruhileko likidazioarekin: ura, gasa eta elektrizitatea.

Telefono-kontsumoaren, WIFI eta datafonoaren kopurua udalaren kontura izango dira.

Era berean, trinketea erabiltzeagatik ordaintzen diren tasen bilketa % 50ean hartuko dute parte.

c) Aldaketa hau indarrean sartuko da 2014ko abenduaren 1etik.

2.-Alkate-Lehendakari andereari baimena ematea, kontratua sinatzeko, udalaren izenean eta ordezkari gisa.

b) Visto que el servicio a prestar se compensaba con un canon negativo, el canon de la concesión se fijará de la siguiente forma:

En concepto de canon, por los concesionarios se abonará la cantidad de 550 euros mensuales, de acuerdo con el siguiente desglose: 454,55 € + 95,45€ (21%IVA).

La cantidad será abonada trimestralmente y a trimestres vencidos.

En todo caso y con cada liquidación trimestral se compensarán los gastos de los suministros de servicios del bar que sean abonados por el Ayuntamiento: agua, gas y electricidad.

El costo del servicio telefónico, el WIFI y el datáfono será a cuenta del Ayuntamiento.

Así mismo participarán en la recaudación en las tasas por utilización del trinkete en un 50%.

c) Esta modificación surtirá efectos a partir del 1 de diciembre de 2014.

2º.- Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente para la firma del contrato, en nombre y representación del Ayuntamiento.

## HAMAIKAGARREN GAIA

### **GALDE-ERREGUAK.**

Ez da ezer aurkeztu.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, jarduneko alkateak 20:30ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA